

## UPV/EHU<sup>n</sup> Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Probak (2015/16)

### **1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK**

**Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu ariketa honen amaierako (7 or.) erantzun-taulan bakoitzari dagokion letra. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.**

1. “Ikerrek ogia ekarri du. \_\_\_\_\_.” Zein da hutsunea betetzeko aukera egokia?
  - a) Nik baita
  - b) Nik, noski
  - c) Baita nik ere
  - d) Baita ere nik
2. “Gu isil-isilik \_\_\_\_\_, laster konturatu zen non ginen gu gordeta.”
  - a) egon ere
  - b) egonda ere
  - c) egoteagatik
  - d) egotearren
3. Adierazi honako hitz hauetako zein dagoen ondo idatzita.
  - a) Haizkora
  - b) Haitzurra
  - c) Harroka
  - d) Haitza
4. “Igandean \_\_\_\_\_ batera igo ginen.” Zein da hutsunea betetzeko aukera egokia?
  - a) mendiska
  - b) mendixka
  - c) mendizka
  - d) menditska
5. “Zu konturatzera hamaika lagun konturatuko dira”. Nola esan daiteke beste era batera?
  - a) Denok bateratsu konturatuko zarete.
  - b) Lehenago konturatuko zara zu.
  - c) Zu bezain laster konturatuko dira besteak ere.
  - d) Jende asko konturatuko da zu baino lehen.
6. Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?
  - a) Bai, etzi ikusten gara.
  - b) Bai, etzi ikusiko gara elkar
  - c) Bai, etzi ikusiko dugu elkar.
  - d) Bai, etzi ikusten dugu elkar.
7. “Hain musu goxoa eman zion, non liluraturik utzi zuen”. Esaldi hauetako bat EZ da zuzena.
  - a) Hain muxu goxoa eman zion, liluraturik utzi zuela.
  - b) Liluraturik utzi zuen, hain muxu goxoa eman zion.
  - c) Hain musu goxoa eman zion, ezen liluraturik utzi baitzuen.
  - d) Hain musu goxoa eman zion, ezen liluraturik utzi zuen.
8. “\_\_\_\_\_ diru gehiago izan, \_\_\_\_\_ gehiago gastatzen dugu”. Esan zein den hutsuneak betetzeko aukera egokia.
  - a) Zenbat eta / hainbat eta
  - b) Orduan eta / orduan eta
  - c) Gero eta / hainbat
  - d) Gero eta / gero eta

9. "Ostiralean kantari ibili ziren \_\_\_\_\_." Zein da hutsunea betetzeko aukera egokia?
- kalez kale
  - kalerik-kale
  - kalez-kale
  - kalerik-kalera
10. Honako hitz hauetatik zein EZ dago ondo idatzita?
- Hemezortzi
  - Hamairu
  - Seiheun
  - Hirurogei
11. "Lana bukatu ondoren, afaltzera joan ziren." Esaldi hauetatik zein EZ da baliokidea?
- Lana bukatuz, afaltzera joan ziren.
  - Lana bukatuta, afaltzera joan ziren.
  - Lana bukatuak, afaltzera joan ziren.
  - Lana bukatutakoan, afaltzera joan ziren.
12. "Dirua irabazi ahala, barra-barra gastatzen zuen hark." Zer esan nahi du?
- Irabazi bezain laster xahutzen zuen dirua.
  - Irabazten zuen apur hori berehala gastatzen zuen.
  - Irabazten zuen guzti-guztia tabernetan gastatzen zuen.
  - Irabazten zuena jokoan gastatzen zuen.
13. "Ez pentsa, \_\_\_\_\_ etorri naiz honaino \_\_\_\_\_." Zein da zuzena euskara batuan?
- zeugatik / umeakaz.
  - zugaitik / umiekin.
  - zeugatik / umeekin.
  - zugaitikan / umeekin.
14. "\_\_\_\_\_ abiatu ziren bizikletan eta \_\_\_\_\_ iritsi." Esan zein den hutsunea betetzeko aukera egokia.
- Bizkairuntza / Durangoraino
  - Bizkairantz / Durangoraino
  - Bizkairuntza / Durangora arte
  - Bizkaiaruntz / Durango arte
15. "Zezenak ez omen zion \_\_\_\_\_ egin korrikalariari."
- ezer ere
  - ezer ez
  - deus ez
  - deusik ez
16. "Gonbidapena \_\_\_\_\_ bidali zion, ez idazkariak." Zein da egokiena?
- zuzendariak bera
  - zuzendari berberak
  - zuzendari berak
  - zuzendariak berak
17. Honako esaldi hauetatik zein EZ da zuzena?
- Zutabe hau bost metro luze da.
  - Zutabe honek bost metro neurtzen ditu.
  - Zutabe hau bost metro da luzean.
  - Zutabe honek bost metro ditu luzean.

18. "Albertok azkenik ekin zion horma\_\_\_\_\_." Zein da hutsunea betetzeko aukera egokia?  
a) pintatzera  
b) pintatuz  
c) pintatzen  
d) pintatzeari
19. Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?  
a) Zu ezik gu ere joan ginen.  
b) Zu ez ezik gu ere joan ginen.  
c) Zu izan ezik gu ere joan ginen.  
d) Zu ezezik gu joan ginen.
20. "\_\_\_\_\_ egositako ogia oso gozoa da." Zein da hutsunea betetzeko aukera egokia?  
a) Esnean  
b) Esnez  
c) Esnearekin  
d) Esnetan
21. "Etxeko lorategia\_\_\_\_\_ diseinatu da." Zein da hutsuneak betetzeko aukera egokia?  
a) aitonaren partez  
b) aitonak  
c) aitonarengatik  
d) aitonarengandik
22. Honako esaldi hauetatik aukeratu ezazu egokiena:  
a) Nola maleta ikaragarri handia da, ez dago autoan osorik sartzerik.  
b) Maleta ikaragarri handia denez gero, ez dago autoan osorik sartzerik.  
c) Zelan maleta handi-handia da, ezin da autoan osorik sartu.  
d) Maleta ikaragarri handia denentz, ezin da autoan osorik sar.
23. "Ez nekien nori \_\_\_\_\_ egun hartako ikasgaia azaltzea."  
a) zegokion  
b) zegokientz  
c) zegokionik  
d) dagokion
24. "Luzea, erpurua, txikia, erakuslea eta \_\_\_\_\_." Osatu ezazu zerrenda:  
a) alferra  
b) nagia  
c) lausoa  
d) baliogabea
25. "Bostehun euroko billeteak zirkulaziotik kenduko \_\_\_\_\_ dituzte."  
a) ohi  
b) al  
c) omen  
d) ote
26. Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?  
a) Ez dira elkar ezagutzen.  
b) Gauzak elkar oparitzen dira.  
c) Elkarri lagunduko diogu.  
d) Lagunak ezin dira elkar ikusi distantziagatik.

27. "Horko koadroen artean, zeuk \_\_\_\_\_ ez dago \_\_\_\_\_." Esan zein den hutsuneak betetzeko aukera egokia.
- egindakoa / bat ere ez.
  - eginikoak / bat ez.
  - egina / bat bera ez.
  - egindakorik / bat ere.
28. Honako esaldi hauetatik esan ezazu zein den zuzena:
- Bereak eta bost entzun arazi dizkiot.
  - Iparraldeko gazteak Ameriketara joanarazi zituzten.
  - Buelta osoa emanarazi nauzue.
  - Gaixoari oherarazi diote.
29. Honako esaldi hauetatik esan ezazu zein den zuzena:
- Mediterraneo aldera joan zen, osasuna hobetuko zitzaioneko ustean.
  - Mediterraneo aldera joan zen, osasuna hobetuko zitzaiolako ustean.
  - Mediterraneo aldera joan zen, osasuna hobetuko zitzaionaren ustean.
  - Mediterraneo aldera joan zen, osasuna hobetuko zitzaiola ustean.
30. "\_\_\_\_\_ Axular zen ezagunena." Zein da hutsunea betetzeko aukera egokia?
- Idazle klasikotan
  - Idazle klasikoengan
  - Idazle klasikorengan
  - Idazle klasikoetan
31. "Berehala konturatu ginen ekaitza laster \_\_\_\_\_." Bete ezazu hutsunea:
- zeturrelaz
  - zeturrenaz
  - bazeturrela
  - zeturrela
32. Honako zerrenda hauetako batek LEKUZ KANPOKO hitz bat darama. Zein da?
- orrialdea, azala, bizkarra, aurkibidea
  - arraina, kanabera, amua, kurloia
  - adarra, sustraia, enborra, hostoa
  - liburua, kaiera, aldizkaria, hiztegia
33. "Hauteskunde egunean \_\_\_\_\_ eman behar dugu." Zein da hutsunea betetzeko aukera egokia?
- boza
  - bozka
  - botua
  - bota
34. "Praktikak \_\_\_\_\_ asko ikasten da." Zein da hutsuneak betetzeko aukera egokia?
- eginez
  - egiten
  - egiteagatik
  - egiteaz
35. "Gaur irakasle berri bat etorri zaigu, lau hizkuntza \_\_\_\_\_." Bete ezazu hutsunea:
- dakienak
  - dakizkiena
  - dakizkienak
  - dakizkiela

36. “Zenbait \_\_\_\_\_ txoriak ikusi ditugu.” Zein da hutsunea betetzeko aukera egokia?
- zuhaitzean
  - zuhaitzan
  - zuhaitzatan
  - zuhaitzetan
37. Esaldi hauetatik zein da zuzena euskara batuan?
- Nire herrialde horrekingo lotura oso handia da.
  - Herrialde horrekiko nire lotura oso handia da.
  - Herrialde horrekin neure lotura handi da oso.
  - Herrialde horrekineko neure lotura handia da oso.
38. Esan zein den euskaraz zuzen idatzita dagoen data.
- Gasteizen, 2012ko abuztuaren 11n.
  - Gasteizen, 2012ko abuztuak 11an.
  - Gasteiz, 2012ko Abuztuaren 11n.
  - Gasteizen, 2012ko abuztuaren 11ean.
39. “Gaueko 11etan iritsi zen, eta jatetxea \_\_\_\_\_ itxita zegoen.”
- dagoeneko
  - honezkero
  - oraingoz
  - ordurako
40. “Nik horrela egingo nuke; \_\_\_\_\_, zuk nahi duzun bezala egin dezakezu.”
- aitzitik
  - ostera
  - gainera
  - ordea
41. Zein dago zuzen idatzita euskara batuko araudiaren arabera?
- Azterketa 2ngo gelan izango da.
  - Azterketa 2garren gelan izango da.
  - Azterketa 2. gelan izango da.
  - Azterketa 2.n gelan izango da.
42. Honako esaldi hauetatik zein da zuzen idatzita dagoena ortografiaren aldetik?
- Etzi, ziur aski, Anerekin elkartuko gara.
  - Etsi, ziur azki, Anerekin elkartuko gara.
  - Etzi, siur azki, Anerekin elkartuko gara.
  - Etsi, zihur aski, Anerekin elkartuko gara.
43. Zein da LEKUZ KANPOKO hitz bat duen zerrenda?
- erne, bizkor, bizi, azkar
  - suntsitu, txikitu, birrindu, hedatu
  - jakinarazi, abisatu, gaztigatu, ohartarazi
  - jela, horma, izotz, lei
44. Lanabes hauetariko bat EZ da erabiltzen lurra lantzeko.
- Goldea
  - Ingudea
  - Lai
  - Aitzurra

45. “\_\_\_\_\_, aurkezpenak egingo ditugu.” Aukera hauetatik zein EZ da zuzena?  
a) Lehengo  
b) Lehenik  
c) Lehenbizi  
d) Aurrena
46. “Hondarrean partidak luze jo zuen.” Aukera hauetatik zein da baliokidea?  
a) Langan jo zuen.  
b) Lasterka bukatu zuen.  
c) Hondartzako futbol zelaia luze samarra zen.  
d) Uste baino gehiago iraun zuen partidak.
47. “Arkitektura eskolan ikusi zintudan \_\_\_\_\_; zertan ari zinen han?”  
a) beste egunean  
b) aurreko batean  
c) lehenean  
d) egun batetan
48. “\_\_\_\_\_ higuigarria \_\_\_\_\_ film hori, gero!” Zein da hutsuneak betetzeko aukera egokia?  
a) Zelako / da  
b) Zeinen / dela  
c) Nolako / da  
d) Zein / den
49. “Talde horretakoak dotore askoak dira.” Zer esan nahi du?  
a) Talde horretako asko dotoreak dira.  
b) Talde horretakoak asko dira, eta denak dotoreak.  
c) Talde horretakoak oso dotoreak dira.  
d) Talde horretakoak dotoregiak dira.
50. “Jostuna \_\_\_\_\_ bizi da.” Aukeratu ezazu hutsunea betetzeko forma egokia:  
a) josten  
b) jostera  
c) jostetik  
d) jostean

## ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

## **2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA**

Irakur itzazu arretaz hiru testu hauek. Bakoitzaren amaieran, hari buruzko galderak dituzu. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu erantzun zuzenari dagokion letra hiru testuen ondoren (12. orrialdean) dagoen erantzun-taulan. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

### **1. TESTUA**

#### **Zesareaz jaiotako haurren mikrobiota partzialki berreskuratzea lortu dute**

Jaioberriek amaren baginako jariakinekin izaten duten hartu-emanak eten egiten da zesarea bidez jaiotzen direnean. Ondorioz, ez dute garatzen jaioberriengan ohikoa den mikrobiota. Hasierako bakterio-komunitateek haurraren sistema immunearen eta digestioaren garapenean duten garrantzia ikusita, horretan eragiteko modua bilatzen aritu dira ikertzaileak. Pasa den astean *Nature Medicine* aldizkarian argitaratutako ikerketaren arabera, lortu dute mikrobiota hori partzialki berreskuratzekeo modu bat: zesarea bukatutakoan haurra amaren baginako bakterioekin garbitzea.

Jaiotze arte, haurrak bakterioekin gabeko ingurune batean garatzen dira. Amaren kanal baginaletik pasatzen direnean izaten dute lehenengo hartu-emanak bakterioekin. Une horretan, baginako bakterioetan bainatzen dira: azalean itsasten zaizkie, ahotik sartzen zaizkie... Horrela, baginako bakterioek haurraren azala, aho-barrunbea eta hesteak kolonizatzen dituzte, eta, moduren batean, haurraren mikrobiotaren lehenengo hazia bihurtzen dira, haurraren sistema immunearen eta digestioaren garapenean zuzenean eragiten baitute.

Zesarea bidez jaiotakoek, ordea, ez dute amaren baginako jariakinekin hartu-emanik, eta hori hesteetako floran islatzen da. Ez dituzte apenas izaten baginatik jaiotako haurrengan ohikoak diren *Bacteroides* eta *Lactobacillus* generoak. Mikrobiota desberdina garatu izana egon daiteke, ikertzaileen iritziz, zesarea bidez jaiotako hainbat haurrek gerora garatzen dituzten gaixotasun metabolikoen eta immunologikoen oinarrian.

Hori ikusita, amaren baginan gazak jarri, eta zesarea bidez jaiotako haurrak gaza horiekin garbitu dituzte jaiotze eta berehala. Aurpegitik, ahotik eta gorputz osotik pasa dizkiete. Emaitzek argi erakutsi dute haurtxoek bide arruntetik jaiotako haurren antzeko mikrobiota lortu dutela jaiotze eta handik hilabetera.

Ikertzaileek onartu dute baginako bakterioen transferentzia ez dela erabatekoa izan eta metodoa findu beharra dagoela, baina argi utzi dute zesarea baten ondoren haurrak bakterio horiekin harremanetan jartzearen garrantzia. Izan ere, baginako bakterioek emakumeengan oinarritzko funtzioa dute: infekzioen aurkako babesa. Baina, ikertzaileen arabera, baginako bakterioek badute bigarren zeregin bat, lehenengoa bezain garrantzitsua: seme-alaben geroko mikrobiota garatzen laguntzea.

Hortaz, erditze-motak seme-alaben profil bakterianoa baldintzatzen du. Hala ere, onartu dute ez dela faktore bakarra. Ikertzaileen arabera, zesareak, haurdunaldian hartutako antibiotikoak eta amaren bularra hartu beharrean formulako esnea hartzea dira haur jaioberrien mikrobiotaren garapen naturala aldatzen duten faktore ohikoak.

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute  
ELHUYAR, 321 alea, 2016/02/08 (Testu moldatua)



**1. Testuaren arabera, zer ikertzen ari dira zientzialariak?**

- a. Zesarea bidez jaiotzen diren haurren harremana amarekin.
- b. Jaioberrien sistema immunearen eta digestioaren garapena.
- c. *Nature* aldizkariak argitaratutako mikrobiotari buruzko artikulua.
- d. Amaren baginako bakterioak garbitzearen eragina.

**2. Zergatik dira garrantzitsuak bakterioak?**

- a. Emakumeak infekzioetatik babesten dituztelako.
- b. Lehenengo hazien digestioa egiten laguntzen dutelako.
- c. Seme-alaben garapena baldintzatzen dutelako.
- d. Antibiotikoak eta formulako esnea baino garrantzitsuagoak direlako.

**3. Noiz hartzen du jaioberriak lehen harremana bakterioekin?**

- a. Jaio baino lehen, amaren barruan.
- b. Jaiotzean, baginatik pasatzean.
- c. Jaio ondoren, mikrobiota garatzean.
- d. Jaio eta hilabetera, zesarea pasatutakoan.

**4. Haurren sistema immunea garatzeko, ...**

- a. baginako bakterioetan bainua hartu behar dute.
- b. azala, ahoa eta hesteak ondo garbitzen dizkiete.
- c. mikrobiotaren hazia behar da.
- d. ezinbestekoa da bakterioekin kontaktua izatea.

## 2. TESTUA

### ***Kama Sutraren gako ezkutak***

India, K.a. 240. eta 550. urteen artean. Vatsyayana idazle eta lekaideak *Kama Sutra edo Sexualitateari buruzko aforismoak* idatzi zuen. Lana ezagun egin duten sexu jarrerez gain, *Kama Sutrak* beste gai batzuk jorratzen ditu; esaterako, emaztea aukeratzeko irizpideak eta emaztearen betebeharrak eta pribilegioak.

Hala, liburuaren hirugarren atalean emazte perfektuak menperatu beharreko 64 arte zerrendatzen dira: janaria prestatzea, janzkera, masajeak, lurrinak nahastea, xakea, konjuruak egitea, zurgintza, koadernaketa... Horien artean, zerrendako 45. tokian, Mlecchita Vikalpa edo idazketa eta komunikazio sekretuaren artea dago. Horrenbestez, *Kama Sutraren* jasotakoa kriptografiaren aipamen zaharrenetakoa da.

Jatorrizko bertsoan enkriptatzeko metodoaren xehetasunik ematen ez den arren, liburuari geroago erantsi zitzaizkion iruzkinetan, esaterako, Yasodharak gehitutako Jayamangala iruzkinean –X. eta XIII. mendeen artean– sistema zehatzak proposatzen dira. Horien arabera, testuak enkriptatzeko ordezkapen kode monoalfabetiko soilak erabili ohi zituzten. Alfabetoa bi zatitan banatu, letrak ausaz nahastu, bikoteak osatu eta letra bat besteaz ordezkatu besterik ez zen egin behar. Ordezkapenezko sistema horri *Kama Sutra* kodea edo *Vatsyayana* kodea esaten zaio eta gaur egun erraz deszifra daiteke frekuentzien analisia eginda. Baina garai hartako teknologia eta alfabetatze maila aintzat hartuta, nahikoa zen amodio kontuen sekretutxoak gordetzeko. Eta beste helburu batzuetarako ere bai, Julio Zesarrek Galiako gerran ordezkapen hutsezko enkriptatze sistema erabili baitzuen.

*Kama Sutrak* proposatzen duen erabilerak gerra sustatzeko baino bakeari eusteko asmoa du. Kriptografiak emakumeei beren harremanen xehetasunak gordetzeko balio behar die eta, hala, senarra hobeto zerbitzatuko dute. Baina ez hori bakarrik. Sekretuak gordetzeko artea “beti da erabilgarria eta gogoz hartua”, baita emakumea senarrik gabe edo atzerrian bakarrik dagoenean ere. *Kama Sutraren* teknikak menperatzea jarrera akrobatikoak erabiltzea baino gehiago baita.

Nagore Irazustabarrena Uranga

ARGIA, 2503 alea, 2016/04/17

Testu moldatua

**5. Testuaren arabera, ...**

- a. idazketa sekretuaren gaineko xehetasunak *Kama Sutraren* jatorrizko bertsioan baino ez dira agertzen.
- b. *Kama Sutraren* jatorrizko bertsioari Yasodharak Erdi Aroan gehitutako eranskina da Jayamangala.
- c. *Kama Sutraren* hirugarren atalean emakumeek menperatu beharreko arteak enkriptatuta agertzen dira.

**6. Kama Sutra kodea edo Vatsyayana kodea...**

- a. deszifratzea, gaur egun, ez da batere zaila.
- b. maitasun kontuetarako ez ezik gerrari eusteko ere erabili izan da.
- c. deszifratze lanetan dabilzanek maiz analizatzen dute egun.

**7. Zeri egiten dio erreferentzia izenburuko *gako ezkuak* horrek?**

- a. Senarra pozik edukitzeko sexu jarrerei.
- b. Emazteek menperatu beharreko arteei.
- c. Enkriptatzeko metodo zehatz bati.

**8. Testuari kasu eginez, zein da egia?**

- a. *Kama Sutra* gerrak ekiditeko tresnatzat hartu beharko genuke.
- b. *Kama Sutra* sexu jarreraren bilduma hutsa izatetik harago doa.
- c. *Kama Sutra* emakumeentzako kriptografia eskuliburua da.

### 3. TESTUA

#### **Luze pasa**

Egun txarra pasatu dudanean, astea luze egiten zaidanean, pilotariengana jotzen dut laguntza eske. Pilotariei egiten zaizkien elkarrizketak gordetzen ditut, argazki eta guzti, haien beharrea nagoenerako. Argi daukat egunen batean liburuetan bilduko direla eta jendea ohartzen hasiko dela zenbat jakinduria dagoen, eta zer oharkabean pasatu den, kirol sailean gorderik. Sukaldariek goi pentsalari eta poeten tokia hartu duten honetan, ez dut ikusten zergatik pilotariak ezin ditugun filosofo eta autolaguntzaren guru gisan hartu. Dirudien baino ironia txikiagorekin ari naiz.

Ostegunean, egunkari honetan, pilotari batek irakatsi digu ez dagoela inori ezer demostratu beharrik. Aintzat hartu beharreko bestelakoak ere bota ditu: «Ederki asko dakit gauzak nola aldatzen diren», «oinak lurrean eduki beharra daukagu» edo «unean unekoaz gozatu behar dugu, beti ez garelako biziko orain eduki dugun aukerari tiraka». Horaziori diodan adinako begirunez irakurtzen ditut gogoetok. Katuen ondoren, pilotariak dira munduko izaki hedonistenak, eta hor badago denok ikasi beharreko lezioa. Ez dago pilotaririk kantxara gozatzerara ateratzen ez denik. Hori, gozatzea, da garrantzitsuena, diote. Plazeraren apologistarik behinenak, pilotariak.

Angel Erro  
2016/05/08  
Jira, BERRIA

#### **9. Zergatik gordetzen ditu Angel Errok pilotariei egindako elkarrizketak?**

- a. Horrela, egunak eta asteak laburragoak egiten zaizkiolako.
- b. Noizbait, libururen batean biltzeko asmoa duelako.
- c. Oro har, pilotarien iritziak lagungarriak iruditzen zaizkiolako.

#### **10. Pilotarien eta katuen arteko konparazioa egokia da, ...**

- a. biek pilotarekin jolastea atsegin dutelako.
- b. bi-biek unea gozatzea helburu dutelako.
- c. oinak beti lurrean izaten dituztelako biek ala biek.

#### **IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA**

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

### 3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan), eta gutxienez 250 hitzeko idazlan bat egin behar duzu, euskara batuan. A edo B aukera hautatu behar duzu idazlana egiteko. Ongi lotu idazlana gai horri.

**A) Unibertsitateko** irakasle-talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, eta zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Zabalkunde-lanean ari zara (ez testu akademikoa prestatzen). Zeure iritzia ere plazaratu dezakezu.

**B) Eskolako apunteak** prestatzen ari zara, eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK (zure arloko bi gaietako bat aukeratu behar duzu)	
<b>Arkitektura</b>	Eraikin adimendunak	Arkitektura eta hirien suspertzea
<b>Artea</b>	Arkitektura barrokoa	XX. mendeko artea
<b>Biologia</b>	Mutazioak. Aldaketa puntual eta kromosomikoak. Agente mutagenetikoak.	Mikroorganismoen mundua
<b>Ekonomia</b>	Defizit publikoa	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ)
<b>Filologia</b>	Itzulpengintza administrazioan	Diglosia
<b>Filosofia</b>	Erljioa eta politika	Makiavelo eta politikaren eredu berria
<b>Fisika</b>	Energia nuklearra: fisioa eta fusioa	Lurreko berotegi-efektuaren fisika
<b>Geografia</b>	Jaiotzak, hilkortasuna, migrazioak	Itsasikarak
<b>Geologia</b>	Baliabide naturalak: berriztagarriak eta ez berriztagarriak, motak...	Denbora geologikoa. Eskala kronologiko erlatiboak eta absolutuak
<b>Gizarte zientziak</b>	Genero-arazoak gaurko gizartean	Parte-hartze politikoa eta hauteskundeak
<b>Heziketa fisikoa</b>	Aisialdirako jarduera fisikoa eta kirol jarduerak	Futbola: kirola ala negozioa?
<b>Historia</b>	Kolonizazioa eta deskolonizazioa	Greziar demokrazia
<b>Informatika</b>	Kriptografia eta datuen babesak	Arduino eta hardware librea
<b>Informazioa</b>	Euskarazko hedabideen zeregina Euskal Herrian	Lurreko Telebista Digitala
<b>Kimika</b>	Molekularreko indarrak	Polimeroak
<b>Matematika</b>	Logika	Multzoak, aplikazioak eta erlazioak
<b>Osasuna</b>	Gosea garapen bidean dauden herrialdeetan	Dieta magikoak
<b>Pedagogia</b>	XXI. mendeko irakaslea: rol aldaketa	Ikaskuntza kooperatiboa
<b>Psikologia</b>	Psikologia, osasun-lanbide: zergatik ez du Administrazioak osasun arloan onartzen?	Zer dugu Piageten alde eta zer haren kontra?
<b>Teknologia</b>	Espaziorako bidaiak. Badute etorkizunik?	3D inprimatzea
<b>Zuzenbidea</b>	Sindikatuaren erronkak gaur egun	Jabetza intelektualaren babes juridikoa

**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**

**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**

**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**



**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN  
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

**UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):**

**AZTERKETARIA:** ..... **NAN:** .....

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI ( $\geq 32$ )	EZ GAI ( $< 32$ )	

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI ( $\geq 6$ )	EZ GAI ( $< 6$ )	

Idazlana

GAI	EZ GAI
-----	--------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

**AHOZKO AZTERKETA**

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea

**UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)**  
**<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

Azterketaria: .....

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

**IDATZIA**

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

**AHOZKOA**

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: